


6 mantangorri



AZOKA




## LIBURUA

**Izenburua:** 'Txominen 5 zentzumenak'.**Testua eta marrazkiak:** Liesbet Slegers.**Itzulpena:** Lierni Ugartemendia. **Orrialde kopurua:** 56 orrialde, koloretan. **Argitaletxea:** Ibaizabal.

## LIBURUA

**'Tule zuhaitza'**

Hurrengo hazi Tule parkean dagoela jakinarazi dio Ridel liburu hitzunak Caleri. Haziaren bila abiato, abiato dira, baina, parkera iristean, jendez beta dagoela ikusi dute. Zer egin, beraz? Gauean, gazteluetatik ihes egin, eta hazien bila joatea bururatu zaio Caleri. Cale eta lagunek, baina, ez dakite norbaitek segada jarri diela, eta horrek euren egiteko bertan behera uzteria eraman ditzakeela. Mondrago bildumako seigarraren libura da.

**Ana Galán****Pablo Pino**Argitaletxea: **Aizkorri**

## LIBURUA

**'Pirata eskola'**

Kostata, baina iritsi dira azkenean Jim eta haren lagunak Marmoken Itsaslabarrera. Pirata eskola dago han. Iritsi eta berehala, lehen proba egin beharko dute: Hamaka kapitainak hondartzak bakarti batean utzi ditu gaztetxoak. Gauza arraroz betetako kutxabat baino ez dute eskuetan. Eguzkia sartu aurretik, Pirata eskola aurkitu beharko dute. Eskolara iristen ez badira, ez dituzte ikastaroan onartuko. Lortuko ote dute helburua?

**Steve Stevenson****Stefano Turconi**Argitaletxea: **Mezulari**

Jakin-min handiko mutikoa da Txomin. Beti dago ingurura begira, gauza berriak ikasi eta esperimentatzeko irrikaz. Bost zentzumenak ardatz hartuta, eguneroko elementuekin jolasteko hamaika proposamen egiten dio irakurleari liburan.

**Zer erakutsiko du Txominek oraingoan?**

Bost zentzumenei eta haien ezaugarriei buruz mintzo da Txomin liburuan: ikusmena, usaimena, entzumena, das-tamena eta ukimena. Zentzumen bakoitzaren azalpen labur eta simple bat ematen du hasieran, eta, gero, jolas egitera gönbidatzen ditu irakurleak.

**Egitura bera errepikatzen da zentzumen guztiekin?**

Bai. Hasteko, zentzumenaren aurkezpen txiki bat egiten da, esaldi solte batzuekin eta bi orri oso harzen dituen marrazkiarekin. Marrazkiak oso-oso koloretsuak eta argiak dira; elementuak oso erraz identifikatzen dira ilustrazioetan. Aurkezpenaren ondotik, hainbat galdera eta jarduera proposatuko zaizkio irakurleari: aurkikuntza jolasak, gauzak identifikatzeko ari-

ketak, objektuak ukitzeko edo usaintzeko jarduerak... Beraz, zentzumena deskribatzen da lehen bi orrialdeetan, eta ondorengo lau orrialde bikoitzetan jarduerak proposatzen dira. Azken orrialde horietan ezinbestekoa izango da irakurleek parte hartzea.

**Etengabeko keinuak egiten zaizkio, beraz, irakurleari.**

Hala da, bai. Irakurlearen parte hartze zuzena eskatzen du liburuak. Etengabe galderak egiten zaizkio, eta esperimentatzeko jolasak proposatzen. Liburuari ahalik eta zuku handiena ateratzeko, ezinbestekoa da irakurleak parte hartzea. Irakurlea liburuko beste pertsonaia bat izatea nahi du egileak.

**Zein da helburua?**

Zentzumenen ikuspegi-tik haurren mundua ezagutzea da asmoa. Hala, haurrea, haren egunerokotasuna, haren jakin-nahia eta zentzumenak uztartzen dira liburan. Haurrek góoko dituzten elementuak ageri dira: animaliak, jakiak, jostailuak... Beraz, haurrek góoko dituzten elementuekin eta egoerekin lantzen dira zentzumenak.

**Zentzumenez gain, beste hainbat gai lantzeko aukera dago.**

Zentzumenak zeintzuk diren eta bakoitza zertarako erabiltzen den ikastea gain, beste hainbat kontzeptu ikasiko ditu haurrek: animaliak eta haien ateratzen dituzten soinuak; hainbat sentimendu: zer den gazia, zer gozoa, zer mikatza, zer garratza, zer den latza, zer leuna, zer irristakorra... Beraz, zentzumena ikasi eta haien jolasteaz gain, hiztegia aberasteko aukera ere ematen du liburuak.

**Ikasteko liburua da, beraz?**

Bai, ikasteko eta ongi pasatzeko liburua da, entretenitzeko eta esperimentatzeko. Guztia jolas modura planteatuta dago, eta hori da helburua: jolastea eta ikastea.